

OSOKO BILKURA IBILTARIA
ZUMAIAKO UDALETXEA
2018-07-02

EIDER MENDOZA LARRAÑAGA,
BATZAR NAGUSIETAKO PRESIDENTEAREN HITZALDIA

Zumaiarrak, egun on;

Diputatu nagusi, diputatu eta batzarkideok,

ongietorri guztiok Gipuzkoako Batzar Nagusien Bilkura Ibiltarira. Ongietorri, bereziki, Zumaiako alkate-zinegotziei, eta zumaiarrei.

Bilkura hasteko, Oier Korta alkate jauna, zuk duzu hitza.

Eskerrik asko, alkate jauna.

23 urte eta gero itzuli gara, bai, Zumaiara, Euskadiko autogobernuarekin Batzar Nagusiak berreskuratu genituenetik bigarren aldiz. Ohitura hau, ordea, askoz zaharragoa da.

Duela 5 mende baino gehiago, bilkurak 18 hiribildu zaharrenetan egiten zituzten, txandaka. Arrazoietakoa bat, gipuzkoarren artean erro sakonak zituen kaparetasun unibertsalaren ideia da, alegia, elkarrekin beren borondatez elkartuak ziren ermandadeko kide guztien berdintasun ideia. Hala daude izendatuta 1457.urtean, eta Kostaldeko bailaran Donostia, Getaria, Zarautz, Zumaia, Deba eta Mutrikun elkartzen ziren Batzar Nagusiak. Mendez mende iraun zuen honek, Espainiako Gortek Foruak deuseztatu eta Batzar Nagusiak desegin zituzten arte.

100 urteko etena eta gero, Batzar Nagusiak Zumaiara 1995ean itzuliko ziren. Berrikuntza historiko bat dakarte: 6 mendetan lehen aldiz, emakumezko bat aukeratu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusietako buru, Ester Larrañaga, Eusko Alderdi Jeltzalekoa. Oraingo legealdian, emakumezkoak erdiak baino gehiago gara: 27 emakume eta 24 gizon. Argi dago: emakumeen berdintasun eskubidea historiako aldaketa nagusietako bat da eta ez dauka atzerabiderik. Prestatuta eta prest gaude herriaren ordezkari eta agintari izateko. Berdintasuna gauzatzeko giltza, eskubidea erabiltzea da: aukeratzeko eskubidea baldin badaukagu, baita aukeratuak izateko ere. Benetan ulertezina egingo litzaiguke gizonezkoa besterik ez ikustea gipuzkoarren ordezkarien artean; ulertezina eta onartezina. Gipuzkoan, gainera, ez zen arrotza emakumearen duintasuna agertzea: bizitza antolatzeke etxeak zeukan garrantzia kontuan hartzen badugu, emakumea ikusiko dugu etxea heredatzen, gurasoek alaba aukera zezaketelako oinordeko nagusi; ama ageriko zaigu abizena ematen seme-alabei, etxearen izena abizen izaten zenean; edota emakumeak ibiliko dira negozioetan, ostalaritzan edo merkataritzan, gizonekin eskuz esku. Hau ez da, noski, oraingo berdintasuna baina garai haietarako esanguratsua zen eta balio digu gaurkoari bertako ikuspegiz begiratzeko. Atzetik datorkigu kultura eta herri-antolaketa bat emakumearen duintasun eta eskubideen alde bultz egiten duena.

Bigarren alderdi bat azpimarratu nahi dut, gure herriko historian gertaera garrantzitsu bat bizi dugulako: ETA bukatu da. ETAk bizia urratu zuen, pertsona askorena eta etxe askotakoa. Baita Euskadikoa ere, herria ez baita tiroz eta bonbaz askatzen, zartatu eta zapaldu baizik. Zatiketa da ETAk utzi duen herentziatako bat. Bada, zatitu behar ez zena batzeko garaia da, bakezkoak egiteko garaia. Kontu handiz esan nahi dut hau eta begirunez, neurrigabe eta bidegabe sufritu duelako makina batek, Zumaian ere bai, eta ez delako erraza hautsitako bizitza osatzea. Bakezkoa eragin beharrean gaude, ordezkari politikoak garenez, guztion onerako. Eta herri-arduradunon zeregina da, baita ere, preso



daudenen eskubideak bete daitezen laguntzea. “*Errespetu bizia, elkarri merezia*”, abesten zuen Xabier Letek. Lau hitzetan emana bizikidetzak baketzeko giltza.

Bestetik, Legebiltzarrean lantzen ari diren Euskadiko estatus politikoari arreta jartzen diogu Batzar Nagusietan, azkenekoz erabakitzeko eskubidearen aldeko giza katea medio. Konponbide politikoaren bilaketa da, Euskadi eta beste herri batzuk nahi dutena. Une honetan Katalunia daukat gogoan: katalanek aukeratutako hainbat politiko kartzelan eta erbestean, herriaren askatasuna defenditzeagatik, ez kolpeka eta indarrez baizik botoz eta hitzez. Denen ikur, Carles Puigdemont presidente ohoretsua. Guztien askatasuna eta Kataluniara libre itzultzea eskatzen dut, eta katalanen borondate politikoari bidea ematea. Errespetu herriak, demokrazia-aldarria.

Batzar Nagusietako ordezkariak gara gu. Gure historiari begiratzean, ikusiko dugu Demokraziari egin diogula ekarpena eta kanpotarrak harrিতuta geratu zirela Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Arabako ohitura eta legeekin. Lord ingeles bat, Carnarvongo kondea, gure herrian ibili zen orain 200 urte eta miretsita geratu zen jakin zuenean Bizkaiko foruak XV. mendean nola babesten zuen pertsona, eta etxea sakratua zela, epaile batek ere ezin zuelarik inoren etxea indarrez hartu; halaber, nola debekatzen zuten inor atxilotzea epaileak agindu gabe eta akusatuak bere burua defenditzeko eskubidea zuela, Gernikako Haritzaren azpian. Lord hark honela idatzi zuen euskal legean jasotakoaz: “*ohitura hau irmoagoa da gizabanakoaren alde egiten, hain maitea dugun geure Habeas Corpusa bera baino, eta askatasun britainiarraren berme ospetsua gure irletan sortu zenerako, euskaldunek mendeak zeramatzaten beren legea erabiltzen*”. Gipuzkoan ere foru berdintsuak genituen, kontua da Gipuzkoak ohituraz eratzen zuela eskubidea eta Bizkaia idatziz baina bi lurralde senideen legeek arima bera zuten eta, hala, adibidez, bien foruek debekatu egiten zuten bertakorik torturatzea, inortxo ere ez, ezta ezergatik ere, berdin tortura-mehatxua egitea ere. Kapaz zen Gipuzkoa osoko



agintaritza altxatzeko hain foru hauste larriagatik, gipuzkoar bat torturatzekotan zirela jakin ezker, asmo hura galarazi arte. Ez dira Konstituzio modernoetako eskubideak, euskal foruak baizik, orain ehunka urtekoak. Gure Konstituzio historikoa da, euskaldunen izaera independentea eta horren sena adierazten duten ezaugarriekin.

Itsas ertzeko herria gara. Datorren urtean sarri aipatuko dugu Getariako semea, Juan Sebastian Elkano, munduari bira ematen lehena. Aitzindariak izan ziren gure arrantzaleak Ameriketara joaten, eta nazioarteko harremanak egiten. Estatu Batuen sorreran bertan, euskaldunok amerikarrei ez genizkien armak bakarrik bidali Ingalaterraren aurkako gerra egiteko. Amerikarrak, historiako lehenengo Konstituzio demokratikoa lantzen hasi zirenean, John Adams, Konstituzio haren egileetako bat Europara etorri zen, ze gobernu-sistema zeuden ikustera. Monarkia absolutu eta antzinako erregimenen artean, "errepublika demokratiko" bakan batzuk aurkitu zituen, adibidez, Suitzako Grisoien kantoia, Italiako San Marino, eta Bizkaia. Beraz, aztertu zituen foruak eta foruetan oinarritutako sistema politikoa eta eredugarriak iruditu zitzaizkion Amerikako Estatu Batuetan sortu nahi zituzten erakundeetarako, alegia, ikusi zuen herria zela sujetu protagonista bere gauzak erabakitzen zirenean. Iraultza frantsesaren atarian izan zen hori.

Geroxeago, 1801ean ibili zen euskal lurretan, Iparraldetik hasita Gasteizeraino, Gipuzkoan eta Bizkaian barrena, Wilhelm von Humboldt jakintsu alemana. Migel Unamunok itzultitako "Los vascos" liburuan, idatzita utzi zuen: "*Euskaldunak, nekazaritzan, itsasoan eta merkataritzan aritzen diren herria dira, eta ez dira gorputzeko onik gabe bizi, bestela ezinezkoa baita aurrerapen moralik. Antolaketa askea dute, jendaurreko eztabaidak jeneralean herriko hizkuntzan –euskaraz, esan nahi da–. (...) Beren herrialde eta nazioa gogotik maite dute eta leial irauten dute beren aberriarekiko, baita ondasunak dituztenek, nahiz eta Gaztelako ohorezko tituluak jaso, eta beren aberrian bizi ohi dira herriarekin bat eginda*" eta eransten



du “*klaseen bereizketa ez dela horren nabarmena*”. Azpimarratu egiten du Gipuzkoako Batzar Nagusien izaera demokratikoa “*demokrazia hutsa eta osoa*” ikusten baitu gure sisteman. Azpimarra honen arrazoia da, gure aginte-antolakuntza berezia zela antzinako erregimenen garaian: ez zeukan zerikusirik Gorteekin, non hiru gizarte-mailako ordezkariak zeuden: nobleak, elizgizonak eta ziutateak. Aldiz, Gipuzkoako Batzar Nagusietan, herriko gauzak herriaren ordezkariak erabakitzen zituzten, hartarako aukeratutako gipuzkoarrek. Baliotsua jo zuen Estatu Batuetako 2. Presidentea izango zenak amerikar erakunde berriak antolatzeko. Badugu zergatik ezagutu eta maitatu geok ere.

Izan ere, zerbait esan nahi du honek guztiak. Herri izatea aspaldikoa dugu, euskarak gizaldiz gizaldi eman digu izena eta izana, herri independente edo burujabearen eskubideak ageri dira guren historian, gure burua gobernatzeko gaitasuna eta borondatea erakusten dute, eta giza duintasunaren eta berdintasunaren kontzientzia bizia eta errotua. Euskal herri-identitatea giltzatzen dute. Gure eskubideak eta legeak ez genituen galdu uko egin genielako edo zaharkituak geratu zirelako, baizik eta Estatua egiten duen legediaren indarrez kendu zizkigutelako eta espainiar batasun zentralistak ezin zuelako eraman foruak herri-borondatearen adierazle izatea eta ezin zirela aldatu aldebakarretik. Ondo asko dakigu zer gertatzen den: auzia berpiztu egiten da. Herriak, askatasunez erabakitzeko eskubidearen jabe, behin eta berriz eskatzen du berea, eskubideak iraun egiten duelako, herriak bereari eusten dionean.

Hau guztia ez da historia bakarrik baizik eta, batez ere, historia bizia. Ez museo batean jartzeko eta ze ederra zen ikusteko..., ederra bai baina iragana eta aldaezina. Ez. Hau guztia da foruetatik datozkigun eskubide historikoak eguneratu eta gaur erabiltzeko. Foruak esan nahi du eskubide propioa, guztiona dena, inor baztertu gabe, eskubideak denonak baitira. Ondorioz, eskubide historikoak ez dira atzokoen borondatea baizik eta gaur egun bizi garenon borondatea, gure nahia



aske erabakitzeko eskubidea inspiratzen dutenak, hitzez gauzatzekoa, botoz eta legez. Euskadiko estatus politikoa erabakiz demokrasiari egitura eman behar diogun honetan, gipuzkoarrok eta beste euskaldunek ez dugu ordularia zero minutuan jarri beharrik, mendetako ondare aberats hori edukita.

Aniztasuna eta globalak garela azpimarratzen da sarri, gure herriko ezaugarri garrantzitsuak direla esanez. Bai noski, baita Frantzia, Ingalaterra, Espainia eta beste herrietakoak ere. Unibertsaltasunaren ideia nabarmentzea –gaur egun globalizazioa esaten da gehiago–, ez da oraingoa. Komeni da Koldo Mitxelenak dioena gogoratzea: *“Ez da unibertsala nahi duena, ahal duena baizik eta kilometro karratua neurri txarra iruditzen zait lokala zer den finkatzeko gure mundu honetan”*. Errenteriako semeak azpimarratzen du *“euskaldunek, kopuruz dagokiena baino askoz eragin handiagoa izan dutela munduan, apala izanagatik”* eta geuk sortutako gauza jakingarrietako bat *“gure erakunde propioen babesean garatu zen bizi-eredu kolektiboa”* aipatzen du. Beraz, herri baten aurrean gaude, herria bat da, eta bere barruko aniztasunak ez du deseginen herria eta bizkarrezurra ematen dioten ezaugarriak, ezta desegin behar ere.

Puntu honetan, herri-egile indartsu bat ageri zaigu: hizkuntza, Euskadin, euskara. Bete-beteen asmatzen du Gandiak bere olerkian: *“Euskara / Hizkuntza bat ez ezik / Herri bat ere bada”*. Eta Mitxelenak, *“Euskal Herria gaur egun bizi bada herria dela ohartuz, hori, batez ere, hizkuntzari esker da: herri baten historia bizia da hizkuntza, eta euskara, euskal herriaren historia bizia”*. Filologo ospetsuaren arabera, *“gizarte ikuspegitik hizkuntza bat hitz egiteak edo norberarena dela sentitzeak herri batekoa dela jabetu arazten dio bati”*. Ikasiko ditugu beste hizkuntzak, gaztelania eta frantsesa, alemana eta ingelesa eta abar, baina horiek ez gaituzte gipuzkoar euskaldun egingo. Euskarak bai. Lotuta daude gure hizkuntza eta Euskal Herria, euskara eta Euskadi. Bata pizten denean bestea indartzen da; bata zabaltzen denean, bestea sendotzen. Erabiltzea da giltza.



Euskarak batzen gaitu Euskal Herri barruan eta bereizten munduan, gainerako herrietatik. Izena eta izana ematen digulako maite dugu, gure-gurea dugulako. Guretzat nahi dugu euskara. Baita gipuzkoar berrientzat ere, itsasoaz bestaldetik datozenentzat, eten gabe.

Gaur egungo mundualdia markatzen ari da migrazio handi hau. Gizalegez erantzun beharra dago hainbat eta hainbat pertsonari eta berebiziko erronka honi. Kontrakoa eskandalua da, zer esanik ez XXI. mendeko Europan. Gipuzkoako historia zaharrean, oso barruan sartua ageri zaigu berriro berdintasuna. Udalerri bakoitzak zituen bere ezaugarriak, baina denek zekiten herri bat ez zela besteak baino gehiago ez gutxiago, inor ez zegoela besteen gainetik ez azpian eta horrek herria batzen zuela. Kontzientzia kolektibo hori gipuzkoar-gipuzkoarra da, eta baliagarria zaigu munduko bazter askotatik datozkigun pertsonak gipuzkoar berriztat hartzeko, gure kideak eskubideetan eta gure kideak betebeharretan. Elkartasunez eta berdintasunez erantzutea da herri izaten jarraitzeko bidea, gure aurrekoekin lotzen gaituena eta euskal sena indartzen duena.

Bukatzeko, izen bat nabarmendu nahi dut, zumaiar handi batena. Diktaturako urte latzetan andereñoak prestatu eta haurrak hezi zituen. Manuel Lekuonak aitortzen du ikastolaren labeko sua ia itzalian zegoela, hark berpiztu zuela eta iraunarazi, ezkutu-ezkutuan lan eta lan. Ezin dugu isilik pasa bere aurkikuntza berezia: *Nor-Nori-Nork* metodoa asmatu zuen 50-eko hamarkadan, aditza ikasteko. Arrotza zitzaien haurrei erderazko gramatika: "agente", poliziarekin nahasten zuten, "paciente" gaixoarekin, eta "recipiente" auskalo ze ontzirekin. Beharko asmatu *Nor-Nori-Nork*, umeez euskal aditza ikasiko bazuten! Argia eta saiatua, langilea eta kementsua, euskaldun porrokatua eta abertzalea. Emakumea. Elbira Zipitria Irastorza zen, 1906an jaioa, hementxe, Zumaian. Uste dut ezezaguna dela oso, zoritxarrez. Egia esanda, hutsuneak baditugu gure herrian: batzuetan, politikakeria edo aldekoikeria medio, aitzindari izandako hainbat gizon-



emakume baztertu ditugu eta, ondorioz, ez dugu haien berri jaso ez eman, gure bidegileei buruzko ezjakintasun larrian eroriz. Ezbairik gabe, zuzendu beharreko okerra da.

Beraz ba, ondorioz, izan gaitzen geu. Garrantzitsua da atzera begiratzea aurrera jotzeko. Gure herriaren ezagutza historikoa ezinbestekoa da identitate pertsonal eta kolektiborako, Euskal Herri izateko eta munduan egoteko. Izan gaitzen gipuzkoar euskaldun gure geroa pentsatzen eta demokrazia eraikitzen, berdintasuna sendotzen eta giza duintasuna indartzen. Badugu zerk argitu erabakitzeko eskubidearen bidea eta non oinarritu guztion artean eta guztiontzako jaso dezakegun Euskal Herri baketu eta askea, bizitoki duin eta ona: gure konstituzio historikoen eguneratzean, herritarren esku hartzeaz eta herri-agindua betez.

Hau dugu legealdiko azken Osoko Bilkura Ibiltaria. Urtebete barru, Hondarribian elkartuko dira Batzar Nagusiak, berrituak, hauteskundeen ondoren. Bitartean, uda on eta urte politikoaren hasiera arte.

